

Pasos a seguir para luchar porque la atención al parto en casa en Euskal Herria sea universal y gratuita, y el reintegro de la cantidad de dinero invertida en vuestro parto:

1. Ir a la Delegación del Gobierno Vasco (Zuzenean) y entregar las siguientes hojas con la factura original del parto en casa y los recibos bancarios de las transferencias realizadas al equipo de parto en casa anexadas.
2. Llevar dos copias de todo y en el momento de entregarlas pedir que os sellen ambas copias y os quedáis con una de ellas.
3. Pasado el tiempo máximo establecido (6 meses) y en caso de que no haya habido respuesta o la respuesta sea negativa acudir al defensor del pueblo (en el defensor del pueblo vais a necesitar las copias selladas entregadas a Zuzenean).
4. El defensor del pueblo actuará como intermediario entre vosotros y la institución:

OFICINA DE ATENCIÓN CIUDADANA DE DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN - HORARIO DE ATENCIÓN

AL PÚBLICO (ARARTEKO) Avenida de
la Libertad 26, 4º 20004 Donostia-San
Sebastián

Tel: 943 42 08 88 Fax: 943 42 72 97 e-mail: arartekoa@ararteko.eus

Sabemos que la burocracia es pesada y extenuante, pero si no somos nosotros los que hacemos estos primeros pasos no conseguiremos que esta situación cambie.

Eskaera/ Kexa

Interesatua:

Izen-abizenak:

NA:

Helbidea:

Telefona:

Eposta:

Norentzat

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarentzat

Adierazten dut:

Haurdun geratu nintzenean erabaki nuela etxean erditzea. Aukera hori izango zelako onena nire familiarentzat eta niretzat. Baina hemen, etxean ezin daiteke erditzerik izan, modu pribatuan ez bada. Ondorioz, etxean erditzeko eskubidea soilik da ekonomikoki aukera dutenentzat edo ahalegin ekonomiko handia egiten dutenentzat.

Errealitate hori injustua izateaz gainera, kontraesanean dago Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2010ean esan zuenarekin **Ternovszky Hungariaren aurkako** kasuan: “bizitza pribatua errespetatzeko eskubideak barne hartzen du erditzearen inguruabarra aukeratzea”, Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8. artikuluari helduz.

Errealitate hori Osasunaren Mundu Erakundeak (OMS) dioenaren aurka ere badago. 1985eko apirilean, Osasunaren Erakunde Panamerikanoarekin batera, **Sendotasunaren Adierazpena** idatzi zuten. Bertan esaten da emakume orok izan behar duela erditzeko harrera metodo ezberdinen berri. Besteak beste, etxean erditzeko eskubidea, baldin eta ez badago kontraindikaziorik. Era berean, OMSen erditze normaleko zainketa izeneko gidaliburua dago eta 1996an Genovan idatzitako gida praktikoa, haxe irakurri daiteke: “Baieztatu daiteke emakume batek erditu behar lukeela bera seguru sentitzen den toki batean, eta ahalik eta laguntza gutxienarekin, non ziurtatuta egongo den maneiuzuzena. Arrisku baxuko emakume batentzat etxea izan daiteke hori, amaetxe txiki batean edo agian, ospitale handi bateko ama berrien atal batean. Dena den, izan behar du leku bat non arreta eta zaintza guztiak bere beharretara eta segurtasunera bideratuko diren, bere etxe eta kulturatik ahalik eta gertuen. Erditzea etxean izango bada, alde aurretik eginiko planak egon behar dira emakumea ospitale batera bidaltzeko (horrelakorik egitea beharrezkoa izango balitz) eta emakumeak hori guztia jakin behar du.”

Gainera, nahiz eta Euskal Autonomi Erkidegoan eta Estatu Espainiarrean aurreikusten den etxean erditzeko aukera bakarra pribatua izan, azaroaren 16ko Madrilgo Komunitatearen Osasun Aukera librearen, 6/2009 Legearen BOEko aitzinsolasean haxe adierazten da: “osasun publiko parte hartzailea eta bezeroari osoki emana, bakar-bakarrik da posible bezeroak osasun etxea eta langile profesionala aukeratzeko askatasuna duenean” argi eta garbi adieraziz bezeroak direla aukeratu behar dutenak non eta norekin izan osasun kontuak, erditzea bezalaxe.

Horrela bada, dokumentu garrantzitsu hauek gauza batean datoz bat: edozein emakumek bere aukera egokiena egiteko eskubidea izan behar duela. Kasu honetan erditzean jarri nahi dugu arreta. Izan ere, gaur eta hemen, etxean erditu nahi duenak diskriminazio ekonomikoa jasango du bere, aukera hau ez baita unibertsala.

Aurrez esandakoaz gain, berriki eginiko ikerketa askotan ikusi da bi emaginek planifikatu eta artatutako etxeko erditzearen arreta segurua ez ezik (1, 2, 3, 4, 5, 6, 7) ekonomikoagoa ere badela (8, 9, 10) ospitalera eramatea baino, arrisku txikiko haurdunaldi batetaz ari garenean.

Izan ere, herrialde askotan gizarte segurantzak bere gain hartzen du etxean erditzeko aukera: Erresuma Batuan, Herbeheretan, Islandian, Norvegian edo Alemanian besteak beste. Eta gobernuak laguntzak ematen ditu Italian, Suitzan, Suedian edo Irlandan besteak beste.

Horregatik guztiagatik eskatzen dut:

Aurrez aipatutako arrazoi eta aipuetan oinarrituta, etxean erditzeko arreta barne hartzea Eusko Jaurlaritzako zerbitzu publikoak edo bestela gutxienez, enpresa pribatuek eskainitako zerbitzu hau diruz laguntzea.

Era berean, eskatzen diot Eusko Jaurlaritzari nire familiak eta nik ordaindu behar izan genuen kopurua (1 eranskina) ordaintzea. Horrela, OMS eta Giza Eskubideen Hitzarmenak aitorturiko eskubidea izango dugu guk ere. Gaur egun Eusko Jaurlaritzak ez baitu bermatzen eskubide hori.

Data, lekua eta firma

Bibliografía:

- 1- Janssen PA, Saxell L, Page LA, Klein MC, Liston RM, Lee SK. Outcomes of planned home birth with registered midwife versus planned hospital birth with midwife or physician. *CMAJ* 2009;181:377-83.
- 2- Jonge Ank, Mesman Jeanette A J M, ManniënJudith, Zwart Joost J, van Dillen Jeroen, van Roosmalen Jos et al. Severe adverse maternal outcomes among low risk women with planned home versus hospital births in the Netherlands: nationwide cohort study *BMJ* 2013; 346 :f3263
- 3- Jonge A, van der Goes B, Ravelli A, Amelikink-Verburg M, Mol B, Nijhuis J, Bennebroek Gravenhorst J, Buitendikik S. Perinatal mortality and morbidity in a nationwide cohort of 529688 low risk planned home and hospital birth. *BJOG* 2009; 116:1177-1184.
- 4- Kenneth C Johnson and Betty-Anne Daviss. Outcomes of planned home births with certified professional midwives: large prospective study in North America. *BMJ* 2005;330:1416 (18 June).
- 5- Olsen O, Clausen JA. Planned hospital birth versus planned home birth. *Cochrane Database of Systematic Reviews* 2012, Issue 9. Art. No.: CD000352. DOI: 10.1002/14651858.CD000352.pub2.
- 6- Ruiz-Callado, Raúl; Romero-Salord, Fidel; Fontanillo-Garrote, Alicia. Mortalidad perinatal en los partos únicos asistidos a término en España entre 1995 y 2009 según ocurrieran en domicilio particular o en centro sanitario. *Enfermería. Comunitaria (rev. digital)* 2012, 8(1).
- 7- Wax JR, Pinette MG, Cartin A. Home versus hospital birth—process and outcome. *Obstet Gynecol Surv.* 2010 Feb;65(2):132-40.
- 8- Anderson, R. E. and Anderson, D. A. (1999), The COST-EFFECTIVENESS OF HOME BIRTH. *Journal of Nurse-Midwifery*, 44: 30–35. doi:10.1016/S0091-2182(98)00072-X
- 9- Janssen, Patricia A., Craig Mitton, and Jaafar Aghajanian. “Costs of Planned Home vs. Hospital Birth in British Columbia Attended by Registered Midwives and Physicians.” Ed. Sari Helena Räisänen. *PLoS ONE* 10.7 (2015): e0133524. PMC. Web. 3 Nov. 2016
- 10- Schroeder Elizabeth, Petrou Stavros, Patel Nishma, Hollowell Jennifer, Puddicombe David, Redshaw Maggie et al. Cost effectiveness of alternative planned places of birth in woman at low risk of complications: evidence from the Birthplace in England national prospective cohort study *BMJ* 2012;